

**CONVENIO-ENCARGO ESPECÍFICO PARA LA DETERMINACIÓN DE LAS
CONDICIONES ESPECÍFICAS DE LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN RELATIVA
A LAS GESTIONES DE COBRO Y PAGO**

En Hernani, a 29 de julio de 2016

COMPARECEN

De una parte, D. Aitor Aldasoro Iturbe, en calidad de Vicepresidente del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, en virtud de acuerdo de la Asamblea General de fecha 26 de octubre de 2015.

De otra parte, D. Jose Ignacio Asensio Bazterra, en calidad del Presidente del Consejo de Administración de Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U. (en adelante GHK, SA), actuando en virtud de acuerdo del Consejo de Administración de 16 de mayo de 2016.

INTERVIENEN

Todos ellos en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad para el otorgamiento del Convenio para la Encomienda de Gestión, y al efecto

EXPONEN

Con fecha 3 de junio de 2010 se aprobó por la asamblea del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa el Convenio Marco por el cual éste le encomendó a GHK, SAU como medio propio y servicio técnico del propio Consorcio, el encargo de realizar en su propio nombre y por cuenta del Consorcio el servicio de gestión en alta de residuos urbanos en los términos descritos en su objeto social. En el Convenio Marco se configuran las relaciones entre el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y GHK y se define el contenido

concreto de la encomienda de gestión a asumir por GHK que comprendería el conjunto de actividades necesarias o convenientes para la financiación, creación y explotación de las infraestructuras previstas en el PIGRUG 2002-2016.

Por tanto, en dicho Convenio Marco el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa le encomendó a GHK, S.A.U. la prestación de la totalidad de las funciones que el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa tenía atribuidas en relación a la gestión en alta de los residuos, funciones que GHK, SAU debía prestar en exclusiva, por lo que a partir de dicho momento pasaba a ser GHK, SAU quien prestara, en nombre propio y por cuenta del Consorcio, el servicio de gestión de residuos en alta a la Mancomunidades que forman el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, siendo, por tanto, quien factura a las mismas por los servicios prestados, todo ello bajo el control y fiscalización del Consorcio.

GHK, SAU, en cumplimiento de la encomienda realizada por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa licitó, adjudicó y formalizó el denominado contrato mixto para la construcción, puesta en marcha y explotación del Centro de Gestión de Residuos de Gipuzkoa (CGRG), que fue resuelto por mutuo acuerdo en fecha 13 de noviembre de 2013, y ratificado por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa el 25 de noviembre de 2013, lo que supuso de facto el abandono del proyecto y ha colocado a GHK, SAU en una situación económico-financiera de difícil solución.

Como consecuencia de esta situación económico-financiera y a fin de evitar la consolidación presupuestaria de la inversión asociada al Centro de gestión de Residuos de Gipuzkoa y ejecutar las nuevas infraestructuras en un contexto de desconsolidación del endeudamiento a efectos del cumplimiento de las obligaciones relativas al control de déficit público y endeudamiento de las Administraciones Públicas, la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa en fecha 22 de marzo de 2016 adoptó el acuerdo de modificar el modo en el que venía gestionando el servicio asumiendo el

propio Consorcio parte de la gestión del servicio de su competencia, lo que conllevó a la modificación del Convenio Marco.

Como consecuencia de esta modificación en la forma de gestión del servicio, el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa ha decidido acudir a la figura del contrato de concesión de obras públicas para la financiación, diseño, construcción, mantenimiento y operación de la Planta de valorización Energética y el resto de infraestructuras vinculadas a la misma que formarán el denominado Complejo Medioambiental de Gipuzkoa.

De acuerdo a esta nueva estructura, GHK pasará a prestar sus servicios íntegramente al Consorcio, y será el Consorcio quien prestará el servicio de gestión en alta a las Mancomunidades.

Entre los servicios que GHK prestará al Consorcio, la cláusula primera del Convenio Marco incluye:

- Gestionar el cobro de las tarifas e ingresos aprobados por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.
- Gestionar los pagos tanto en nombre propio y por cuenta del Consorcio, como en nombre y por cuenta del Consorcio

Asimismo, la citada cláusula primera del Convenio marco establece que estas actuaciones serán objeto de un convenio específico en el que se determinan las condiciones de la encomienda de gestión, cuyo contenido mínimo se regula en la cláusula decimosexta del convenio marco.

A la vista de la cláusula decimosexta del Convenio marco y de acuerdo con los antecedentes anteriores, ambas partes otorgan el presente convenio-encargo específico para determinar las condiciones de la encomienda de gestión, con arreglo a las siguientes,

CLAUSULAS

PRIMERA.- OBJETO, ALCANCE, PLAZO

- OBJETO: El presente convenio-encargo específico tiene por objeto determinar las condiciones de la encomienda de gestión para llevar a cabo la gestión del cobro de la tarifa y de los ingresos aprobados por el Consorcio de Residuos así como la gestión de los pagos a realizar tanto en nombre propio y por cuenta del Consorcio, como en nombre propio y por cuenta del Consorcio
- ALCANCE: GHK SAU realizará todas las gestiones de cobro y de pago que le corresponde hacer al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa en sus relaciones con las Mancomunidades, con los concesionarios así como con la propia GHK, SAU.
- PLAZO: La encomienda tendrá el mismo plazo de vigencia que el Convenio Marco arriba citado.

SEGUNDA.- FUNCIONES Y OBLIGACIONES DE GHK, SAU.

Las funciones y obligaciones que GHK tendrá GHK en relación a este convenio específico son:

- Gestionará en nombre y por cuenta del Consorcio el cobro de la tarifa a las Mancomunidades
- Gestionará en nombre y por cuenta del Consorcio los ingresos que el Consorcio pudiera aprobar
- Gestionará en nombre y por cuenta del Consorcio los pagos que el Consorcio deba realizar a las concesionarias
- Gestionará en nombre y por cuenta del Consorcio los pagos que éste le deba realizar a la propia sociedad GHK
- Gestionará en su propio nombre y por cuenta del Consorcio los pagos que deba realizar la sociedad en relación a las encomiendas de gestión directa que le

haya atribuido el Consorcio en el Convenio Marco y los convenios específicos preceptivos.

Para cumplir dichas funciones el Consorcio, cumpliendo la normativa legal, previamente a cada pago autorizará el mismo, y, asimismo, otorgará las facultades precisas para hacer efectivos dichos pagos.

GHK deberá informar periódicamente y, como mínimo, en las sesiones obligatorias del Consorcio sobre el cumplimiento de este convenio específico

TERCERA.- PREVISIONES DEL PLAN ECONOMICO FINANCIERO SOBRE EL COSTE PREVISTO EN EL ENCARGO

Dentro del plan económico financiero aprobado por la Sociedad, se contempla el coste que puede suponer la realización de la tarea encomendada.

Teniendo en cuenta que las funciones encomendadas tienen un componente variable, no se ha determinado un presupuesto estimado para las mismas, sino que se pretende financiar con la tarifa que deberá aprobar el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa para responder a todo el servicio de gestión en alta que debe prestar el Consorcio a las Mancomunidades, que lo hará en parte directamente a través de GHK y en parte indirectamente a través de concesiones administrativas.

El objeto de la tarifa a aprobar por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, es la realización de los servicios de gestión en alta de los residuos urbanos, procedentes de las Mancomunidades partícipes del Consorcio, todas ellas, socias del Consorcio, constituido, precisamente, para prestarles este servicio de gestión, orientado a la sostenibilidad para aprovechar al máximo, los recursos contenidos en los R.U., de acuerdo con la jerarquía comunitaria, de opciones de gestión de los residuos, desarrollando prioritariamente acciones de prevención, junto con actuaciones de reciclaje y valorización, con los máximos niveles de protección medioambiental.

La facturación de los servicios que GHK prestará en cumplimiento de este convenio específico al Consorcio vendrá determinada por el coste total del servicio.

En todo caso, se aplicará lo dispuesto en la cláusula decimocuarta del Convenio Marco relativa a las obligaciones formales que GHK, SAU debe cumplir en relación a sus presupuestos y las cuentas anuales.

CUARTA.- OBLIGACIONES DE GHK DE ASEGURAMIENTO DE LAS OBRAS Y PRESTACIONES ENCOMENDADAS

GHK en relación a los servicios objeto de este convenio específico deberá suscribir las pólizas de seguro necesarias a efectos de cubrir todos los daños que se ocasionen a causa de la ejecución de los servicios cualquiera que sea su naturaleza y volumen

QUINTA.- FECHA DE ENTRADA EN VIGOR DE ESTE CONVENIO ESPECIFICO

Dada la necesidad de adecuar el funcionamiento correctamente, este convenio entrará en vigor el 1 de enero de 2017, manteniéndose hasta entonces el actual sistema de ingresos y pagos.

SEXTA.- RECEPCIÓN DE LAS OBRAS E INSTALACIONES


Dada la naturaleza de las prestaciones objeto de este convenio específico, que no se refieren a obras sino a servicios, no se va a producir la necesidad de recepción de obras e instalaciones.

Fdo: Jose Ignacio Asensio Bazterra

Fdo: Aitor Aldasoro Iturbe

Presidente del Consejo
de Administración de GHK, SAU

Vicepresidente del Consorcio de
Residuos de Gipuzkoa



KOBRANTZEN ETA ORDAINKETEN KUDEAKETA-MANDATUAREN BALDINTZA ESPEZIFIKOAK ZEHAZTEKO HITZARMEN-BERARIAZKO ENKARGUA

Hernanin, 2016ko uztailaren 29an.

ELKARTU DIRA

Alde batetik, Aitor Aldasoro Iturbe jauna, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko presidenteordea, 2016ko urriaren 26ko Batzar Nagusian hartutako erabakiaren indarrez.

Bestetik, Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U.ren (aurrerantzean, GHK, SAU) Administrazio Kontseiluko presidente gisa, Administrazio Kontseiluak 2016ko maiatzaren 16an hartutako erabakiaren indarrez.

PARTE HARTZEN DUTE

Izenpetzaile bakoitzak bere karguko eginkizunak betez, elkarri Kudeaketa Mandatuko Hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa aitortzen diotelarik;

ADIERAZTEN DUTE

2010eko ekainaren 3an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren batzarrak esparru hitzarmena onartu zuen. Horren bitartez GHK, SAUri agindu zion, Kontsortzioaren bitarteko propioa eta zerbitzu teknikoa izaki, bere izenean eta Kontsortzioaren kontura eramateko hiri hondakinen bideraketa-sareko kudeaketa-zerbitzua, bere xede sozialean deskribatutako baldintzetan. Esparru hitzarmenean itxuratzen dira Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta GHKren arteko harremanak, eta GHK-k bere gain hartu beharreko kudeaketa-mandatuaren eduki zehatza definitzen da; mandatu horretan GHHKPO 2002-2016an aurreikusitako azpiegiturak finantzatu, sortu eta ustiatzeko beharrezko eta komenigarriak diren jarduerak sartuko lirateke.

Beraz, aipatu Hitzarmen marko horretan Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak lehendik ere hondakinen altako kudeaketan esleituak zeuzkan eginkizun guztiak betetzeko enkargua eman zion Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak GHK, S.A.U.ri, eta eginkizun horiek GHK, SAUk modu eksklusiboan bete behar zituen; horregatik, une horretatik aurrera GHK, SAU izango litzateke, bere izenean eta Kontsurtzioaren kontura, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioa osatzen duten Mankomunitateei hondakinen altako kudeaketa zerbitzua emango liokeena, eta horren ondorioz bera arduratuko litzateke emandako zerbitzuak mankomunitateei fakturatzear ere, eta hori guztia Kontsurtzioaren kontrolpean eta bere fiskalizazioarekin betiere.

GHK, SAUk, bere aldetik, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak emandako mandatua betetze aldera, kontratu mistoa esaten zaiona lizitatu, esleitu eta formalizatu zuen, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Zentroa (GHKZ) eraiki, martxan jarri eta ustiatzeko. Kontratua suntsiarazi egin zuten alderdiek 2013ko azaroaren 13an elkarren arteko adostasunez, eta 2013ko azaroaren 25ean Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak erabakia berretsi ondoren, proiektua bertan behera uztea ekarri zuen horrek, GHK, SAU egoera ekonomiko-finantzario oso zailean geratuz.

Egoera ekonomiko-finantzario zail horren ondorioz, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Zentroari lotutako inbertsioaren aurrekontu-mailako kontsolidazioa saihestu nahian, batetik, eta Administrazio Publikoen zorpetzearen eta defizit publikoaren kontrolari dagozkion obligazioak betetzeko azpiegitura berriak zorpetzearen deskontsolidazioko giro batean egin behar ez izateko, bestetik, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioaren Batzar Orokorrak ordura arte zerbitzua kudeatzeko zeukan modua aldatzeko akordioa hartu zuen 2016ko martxoaren 22an, Kontsurtzioak berak hartuz bere eskumeneko zerbitzuaren kudeaketaren zati bat, eta horrek Hitzarmen Markoa aldatzea ekarri zuen.

Zerbitzua kudeatzeko moduan egindako aldaketa horren ondorioz, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak herri-lanen kontzesioko kontratuaren figura hautatzea

erabaki du, Gipuzkoako Ingurumen Konplexua izeneko multzoa osatuko duten Balorizazio Energetikoko Plantaren eta horri lotutako gainerako azpiegituren finantzaketa, diseinua, mantentzea eta eragiketa aurrera eramateko.

Egitura berri horren arabera, GHK-k Kontsortzioari soilik eskainiko dizkio bere zerbitzu guztiak, eta Kontsortzioa izango da altako kudeaketa zerbitzua Mankomunitateei eskainiko diena.

GHK-k Kontsortzioari eskainiko dizkion zerbitzuen artean, Hitzarmen Markoaren lehenengo klausulak ondorengoa hartzen du bere baitan:

- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak onartutako sarreraren eta tarifen kobrantsa kudeatzea
- Ordainketak kudeatzea, bai bere izen propioan eta Kontsortzioaren kontura direnak, eta baita Kontsortzioaren izenean eta bere kontura direnak ere

Era berean, Hitzarmen markoaren aipatutako lehenengo klausula horrek xedatzen du jarduketa horiek hitzarmen espezifiko baten barruan egongo direla, eta bertan zehaztuko direla kudeaketako mandatuaren baldintzak. Kudeaketaren gutxieneko edukia hitzarmen markoaren hamaseigarren klausulan dago arautua.

Ikusiz Hitzarmen markoaren hamaseigarren klausula, eta aurreko aurrekarien arabera, alderdi biek ondorengo hitzarmen mandatu espezifikoaren izenpetzen dute, kudeaketako mandatuaren baldintzak erabaki eta zehazteko, hurrengo klausula hauek kontuan hartuta,

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- XEDEA, IRISMENA, EPEA

- XEDEA: Hitzarmen-mandatu espezifiko honen xedea bikoitza da: Hondakinen Kontsortzioak onartutako tarifaren eta sarreraren kobrantsaren kudeaketa aurrera eramateko kudeaketako mandatuaren baldintzak zehaztea, batetik, eta

baita bere izen propioan eta Kontsortzioaren kontura nahiz Kontsortzioaren beraren izenean eta kontura egin beharreko ordainketen kudeaketa ere aurrera eramatea, bestetik.

- IRISMENA: Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziari Mankomunitateekin, kontzesiodunekin eta baita GHK, SAUekin berarekin ere dituen harremanetan burutzea tokatzen zaizkion kobrantzako eta ordainketako izapide guztiak GHK SAUk egingo ditu.
- EPEA: Mandatuak arestian aipatutako Hitzarmen Marko berriaren indarraldi bera izango du.

BIGARRENA.- GHK, SAU-REN EGINKIZUNAK ETA OBLIGAZIOAK.

Hauek izango dira GHK-k hitzarmen espezifiko honen inguruan izango dituen eginkizunak eta obligazio edo betebeharrak:

- Kontsortzioaren izenean eta haren kontura kudeatuko du tarifa Mankomunitateei kobratzea
- Kontsortzioaren izenean eta haren kontura kudeatuko ditu Kontsortzioak onar ditzakeen sarrerak
- Kontsortzioaren izenean eta haren kontura kudeatuko ditu Kontsortzioak kontzesiodunei egin beharreko ordainketak
- Kontsortzioaren izenean eta haren kontura kudeatuko ditu Kontsortzioak GHK sozietateari berari egin beharreko ordainketak
- Bere izen propioan eta Kontsortzioaren kontura kudeatuko ditu Kontsortzioak Hitzarmen Markoaren barruan eta baita aginduzko hitzarmen espezifikoaren barruan ere esleitu dizkion zuzeneko kudeaketako mandatuaren inguruan sozietateak egin beharreko ordainketak.

Eta eginkizun horiek guztiak betetzeko Kontsortzioak, legezko araudia betez, ordainketa bat egin aurretik baimendu egingo du ordainketa hori eta, era berean, ordainketa horiek gauzatzeko beharrezkoak diren ahalordeak ere emango ditu.

GHK-k hitzarmen espezifiko honen inguruko informazioa eman beharko du aldian behin eta, gutxienez, Kontsortzioaren nahitaezko saioetan.

HIRUGARRENA.- PLAN EKONOMIKO FINANTZARIOAREN AURREIKUSPENAK MANDATUAN AURREIKUSITAKO KOSTUAREN GAIN

Sozietateak onartutako plan ekonomiko-finantzarioaren barruan, agindutako lanak burutu eta aurrera eramateak eduki dezakeen kostua ere begiesten da.

Dena den, agindutako eginkizun guztiek osagai aldakorra dutela kontuan hartuz, ez da horientzako aurrekonturik estimatu edo zehaztu oraindik ere; aitzitik, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak onartu beharko duen tarifarekin finantzatu nahi litzateke, Kontsortzioak Mankomunitateei emango dien altako kudeaketa zerbitzu osoari erantzuteko. Zuzenean egingo du zati batean GHKren bitartez, eta zeharka beste zati batean, kontzesio administratiboen bitartez.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak onartu beharreko tarifaren xedea edo helburua, hiri hondakinen altako kudeaketako zerbitzuak aurrera eramatea da, Kontsortzioan parte hartzen duten Mankomunitateetatik datozen hondakinak, kudeaketako zerbitzu hori emateko asmoarekin, hain zuzen ere, osatua izan zen Kontsortzioko bazkideak izanik horiek guztiak, iraunkortasunera bideratua, hiri-hondakinetan dauden baliabideak ahalik eta gehien ustiatu eta baliatzeko, hondakinen kudeaketako aukeren komunitate mailako hierarkiaren arabera betiere, eta lehentasunez prebentzioko ekintzak burutuz batik bat, birziklatzeko eta balorizazioko ekintza eta jarduketekin batera, eta ingurumena babesteko mailarik gogorrenak errespetatuz kasu guztietan.

GHK-k hitzarmen espezifiko honen kariaz Kontsortzioari eskainiko dizkion zerbitzuen fakturazioa zerbitzuaren kostu totalak erabaki eta zehaztuko du.

Edonola izanik ere, GHK, SAUk bere aurrekontuei eta urteko kontuei dagokienez bete beharreko obligazio formalak ezartzen dituen Hitzarmen Markoaren hamalagarren klausulan xedatutakoa aplikatuko da.

LAUGARRENA.- GHK-K AGINDUTAKO LANAK ETA PRESTAZIOAK ASEGURATZEKO DITUEN OBLIGAZIOAK

Hitzarmen espezifiko honen xede diren zerbitzuen inguruan, GHK-k beharrezkoak diren aseguru-poliza guztiak sinatu beharko ditu, zerbitzuak egikaritu eta aurrera eramatearen ondorioz sor daitezkeen kalte guztiak estaltzeko, edozein dela ere kalte horien izaera eta munta edo garrantzia.

BOSGARRENA.- HITZARMEN ESPEZIFIKO HAU INDARREAN SARTZEKO DATA


Funtzionamendua behar bezala egokitu beharra dagoenez, hitzarmen hau 2017ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta ordura arte gaur egungo sarreren eta ordainketen sistemari eutsiko zaio.

SEIGARRENA.- LANEN ETA INSTALAZIOEN ONARPENA ETA HARRERA EGITEA

Hitzarmen espezifiko honen xedea diren prestazioen izaera bereziagatik, bertan ez baitira obrak edo lanak aipatzen, zerbitzuak baizik, ez da aurreikusten obra edo lanen eta instalazioen harrera egiteko premiarik.

Sin: Jose Ignacio Asensio Bazterra

GHK, SAU-ko Administrazio Kontseiluko
presidentea



Sin: Aitor Aldasoro Iturbe

Gipuzkoako Hiri Hondakinen
Kontsortzioko presidenteordea

